Tolosa Ekitaldi ugari Aldaba auzoko Kultur Asteburuan 3

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Ostirala, 2010eko abenduaren 10a. VIII. urtea. 2.138. zenbakia. **www.tolosaldea.hitza.info**

Kirolez beteriko asteburua Zizurkilen

Gaur herri kirolen inguruko mahai-ingurua izango da 19:00etatik aurrera eta ondoren herriko kirolariak omenduko dituzte 5

Unai Azkarate udal teknikaria eta Maria Angeles Lazkano alkatea. E.MAIZ

«Ausardiaz eta irmotasunez» ariko da Barriola finalean

«Betiko erara» jokatuko du Martinez de Irujoren aurkako Lau t'erdiko Txapelketaren azken partida; atzo aukeratu zituzten pilotak 6

I.GARCIA

➜ **Eskualdea etengabe aldatzen ari delako.** Tolosaldea Garatzeneko Migrazio eta Aniztasun Sailak, eskualdeko hainbat udal eta elkarteen laguntzarekin, Mundu Bat Tolosaldean topaketak antolatu ditu. Askotariko ekitaldiak izango dira Tolosaldean «aurkitu ditzakegun munduak» hobeto ezagutzeko asmoz. 4

ESTETIKA ETA KOSMETIKA ZENTROA
KONTSULTA MEDIKU-ESTETIKOA
Maite
Leitza kalea z/g • Tolosa • 943 67 03 38

Gabon hauetan **oparitu**
edertasuna eta ongizatea
aurpegiko eta gorputzeko
tratamendu bonuekin

Zorionak eta Eguberri On!

Emeterio Arresen piztu zituzten argiak, Musika Eskolako akordeoi taldearen doinuek lagundurik. I.T.

Eguberri giroa kaleetan

Atzo piztu zituzten herriko hainbat gunetan argiak; merkatariek loreak banatu eta musika jarriko dute

Iñigo Terradillos Tolosa

Eguberrien etorrera iragarri ohi duen elementu nagusietako bat herriaren apainketa izan ohi da, kaleak argiz eta musikaz girotzen baitituzte. Tolosan dagoeneko piztu dituzte argiak, eta musika ere entzungai da goizez nahiz arratsaldez.

Bada, ordea, aldaketarik beste urteekin konparatuta. Ohi bezala, Tolargik apaingarriak jarriko ditu, eta honek jartzen dituenak osatzeko Udalak ere jarriko ditu, baina ez kaleetan besteetan bezala. Izan ere, aurten guneka apaindu nahi du herria Udalak, eta ez kaleka. Hala, esaterako, Euskal Herria plaza, Emeterio Arrese edota Lapurdi plaza argiztaturik egongo dira. Herri osoan zehar banaturik, 300 elementu inguru jarriko dituzte.

Udalak, bestalde, azken urteetan argiztapenarekin eman den aurrezpena ere azpimarratu nahi izan du: «led teknologia erabiliz orain 37 Kw-eko kontsumoa dugu, lehen 166,2koa zen bitartean».

Musikari dagokionez, 11:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 20:00etara jarriko dituzte entzungai ohiko doinuak. «Herritarrek horrela eskatuta jarriko dugu orduteg horretan, gainera, horrela jendea kalean egon ohi den orduetan baino ez da izango entzungai», azaldu du Olatz Peon Udaleko Auzoetako eta Landa Eremuetako zinegotziak. Halaber, Peonek Tolargiren lana eskertu nahi izan du, eta Udala eta merkatari elkartearen arteko elkarlana azpimarratu du.

Zuzeneko musika eta loreak

Izan ere, Tolosa & Co merkatarien elkarteak ere herria girotzea izango du helburu bere Gabonetako kanpainan. Pedro Tolosa elkarteko lehendakariak azaldu bezala, «ukitu gorria eman asmoz, 500 Pazko edo Gabonetako lore banatuko ditugu». Apaingarriez gain, zuzeneko musika jarriko dute merkatariek abenduaren 21, 22, 23 eta 29an eta urtarrilaren 3 eta 4ean. «Herriko lau gunetan izango dira kontzertu hauek, Tolosako musikariekin, eta ahots taldeak nahiz instrumentalak izango dira», azaltzen du Tolosak.

Halaber, Topic-ekin elkarlanean, abenduaren 30ean izango den *Ozeko magoa* antzezlanera eta urtarrilaren 3 eta 4ean txotxongilo tailerretara doan joateko txartelak banatuko dituzte dendariek.

Musika Eskolako ikasleen kontzertua, Amarotzen

Akordei taldeak eta ikasleen banda ariko dira Amarotz auzoko lokalean, bihar 19:00etatik aurrera

Erredakzioa Tolosa

Akordeoi taldea. HITZA

Amarozko auzo elkarteak antolatuta, Udal Musika Eskolako ikasleek kontzertua emango dute Amarozko auzoko lokalean, bihar, 19:00etan. Akordeoi taldeak eta ikasleen bandak hartuko dute parte bertan.

Akordeoiari dagokionez, bi taldetan ariko dira; alde batetik laukotea, J. Williams-en *Star Wars* joaz, eta bestetik Arrasateko Lehiaketara aurkeztu eta urrezko domina lortu zuen taldea ariko da, akordeoia, perkusioa, pianoa eta kontrabaxuarekin. Azken honek, Arrasaten jotako bi abestiak eskainiko ditu. Ikasleen bandak, berriz, haize metala, haize egurrak edota tronboiak erabiliz, Lara, M. Jarre, S. Joplin, A. Corelli eta Sousaren obrak joko ditu.

Tolosa saria arraunketa proba, etzi Oria ibaian

Gipuzkoako kadete eta infantil mailako taldeak ariko dira, 11:00etatik aurrera; estreinakoz antolatu dute proba

Erredakzioa Tolosa

Tolosa saria batelen estropadak izango dira lehen aldiz etzi, Oria ibaian. Tolosaldeko Arraun Klubak antolaturiko ekimena, 11:00etan hasiko da, eta Gipuzkoako kadete eta infantil taldeen lehia hartuko du.

Estreinakoz egingo duten jarduera honetan infantil mailako 18 talde, etorkizuneko emakumezkoen 8 talde eta kadeteen mailako 14 talde erlojuaren aurka lehiatuko dira.

Arraun Federazioak arau bezala jartzen du parte hartzen duen talde bakoitzak bere uretan arraunketaren bat behintzat antolatu beharra duela. TAKetik azaltzen dutenez, «orain arte ez da posible izan, Oria ibaiak baldintzak ez zituelako betetzen». «Genuen ametsa azkenean errealitate bihurtu da etziko probarekin», diote.

Hilberriak

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN

hilberriak urteurrenak eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena

ESKELAK · 18:30ak arte hartzen ditugu · tolosaldean@hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

HILETAREN BALIOA
Txina Inperiala

Funerarie Vasconcadan ere pentsatzen dugu pertsona bakoitzak bere neurriko hileta izan behar duela. Horregatik, alor horretan lider garenez, aukera ekonomiko guztietara egokitzen diren Hileta Zerbitzu Pack-ak eskaintzen ditugu gure kalitatearen bermearekin.

Berreskuraezina da galdu duzuna, baina laguntza eskainiko dizugu dena errazagoa izan dadin.

FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK
902 402 900
www.funerariavascongada.com

Hitzaldi batekin hasiko dute Kultur Asteburua

Gaur eta bihar Edurne Maizen hitzaldia, haurrentzako filma, merienda eta gaztaina jatea izango dituzte

Erredakzioa Tolosa

Tolosako Aldaba auzoan Kultur Asteburua egingo dute gaur eta bihar eta hitzaldi batekin hasiko dituzte ekitaldiak.

Gaur bertan, 20:00etan, Edurne Maiz aldabarrak Indian lankide boluntario bezala emandako hiru hilabeteko esperientziari buruz ariko da, bertan aterako argazkien laguntzaz, India bost zentzuen bitartez izeneko solasaldian. Bihar, berriz, 17:00etan haurrentzako film bat emango dute eta txokolate beroa ere banatuko dute. Ondoren, haurrek eskulanak egiteko aukera izango dute auzoko elkartearen egoitza apaintzeko Eguberriei begira. 20:00etan gaztaina jatea ere egingo dute. Gaztainak elkarteak jarriko ditu eta afaria bakoitzak berea emango du.

Iazko landa inguruko emakumeen inguruko proiekzioa Kultur Asteburuaren baitan. HITZA

Batxitxango disko jaia eta Beldur Barik jaialdia, gazteen eskutik

Gazte Topaguneak antolatu ditu Laskorain, Orixe eta Hirukideko batxilergoko ikasleekin batera

Erredakzioa Tolosa

Osteguneroko hitzordua izan zuten atzokoan Tolosako Laskorain, Orixe eta Hirukideko Batxilerreko bigarren mailako ikasleek.

Astero-astero biltzen dira Trianguloan dagoen Gazte Topagunean eta atzokoan Gazteria teknikariarekin, Nerea Cerecedarekin, eta Josebe Iturrioz Berdintasun teknikariarekin hitz egin zuten bihar bertan egingo duten Batxitxango disko jaiaren eta beste hainbat gaien inguruan.

Berdintasun teknikariaren hitzetan, garrantzitsua da egiten duten guztiari «berdintasun ikuspuntua» ematea eta horregatik da Udaletik bultzatu nahi den zerbait. «Parte-hartzea bultzatu nahi dugu astero egiten ditugun bilerekin, baina baita beste hainbat arlo ere. Ondo dago gauzak antolatzea, baina eduki bat eman behar zio horri», argitu zuten.

Batxitxango

Biharko disko jaiari dagokionez, hau urte bukaerako bidaiarako dirua biltzeko antolatu zuten lehen aldiz iaz, eta lortutako arrakasta ikusita aurten errepikatzea erabaki dute. Batxitxango disko jaia 23:00etan hasiko da eta 05:00etan amaituko. Beotibarren izango da eta bost euro ordaindu beharko dira. Hau baino lehenago, hala ere, afaria egingo dute Zerkausian. Jana bakoitzak eraman beharko du eta edaria antolatzaileek jarriko dute bi euro ordainduz gero. Diskojaian dj Nekion eta Los40Principales-eko Olga Grande izango dira. iPod-ak, txapak eta kamixetak bezalako opariak ere zozketatuko dituzte.

Beldur Barik jaialdia

Atzoko bileran Beldur Barik jaialdiaz ere hitz egin zuten.

Berdintasun sailak emakumeenganako indarkeriaren aurkako arteen lehiaketa da Beldur Barik. Bertan parte hartzeko lanak *zazpitantrianguloan.com* helbidean daude ikusgai. Jaialdia abenduaren 17an izango da 19:00etan Leidorren eta sarrerak 4 euro balio du.

Era berean, Topagunetik, Gabonetako oporretan Gazte Astea ekimena abiarazi dutela gogoratu behar da.

↓ Egitaraua

GAZTE ASTEA

- **Abenduak 26.** Ping-pong eta futbolin txapelketak 17:00etan.
- **Abenduak 27.** Wii eta play station, 17:00etan.
- **Abenduak 28.** Makillaje tailerra, 17:00etan.
- **Abenduak 29.** Euskal Selekzioaren partidarako irteera.
- **Abenduak 30.** Txokolatada eta merendola.

Tolosako Laskorain, Orixe eta Hirukideko Batxilerreko bigarren mailako ikasleak atzo, Topagunean. I. GARCIA

Gutuna

Zergatik idatzi behar duzue Aiestaran espainieraz?

Edozein hizkuntza normalizatuaren euskara arautu eta jantziaren oinarriak finkatuta, hasiera bateko H bai edo ez duela hogeita hamar bat urte eztabaidak alde batera utzita, euskarak bere ahultasunean eusteko ezinbestekoa duen euskara estandarizatua barneratu genuela uste genuenean, azkenaldian harrituta utzi nau Aiestaran deituraren I euskarazko grafiaren ordez espainierazko Y idazteko luzatu duten kruzadaz.

EITBen duela hainbat urte Osasunaren berri emaile aritu izan dira bi aiestandar eta bere deiturak euskaraz egoki idatzita azaldu izan dira. Hainbat hilabete dira telebistan atzerriko berri emaile baten deitura Ayestaran modura azaltzen hasi zela. EITBko azken agintari aldaketaren politikaren ondorioa zenaren susmoa nuen...

Baina, nire harridurarako TOLOSLDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAN eta 'Gara'n ere azken aldi honetan Aiestaran deituta espainierazko grafiaz azaltzen da.

Zergatik?

Hizkuntza normalizatuetan deitura bakoitza dagokion hizkuntzaren arauen arabera idatzi behar bada ez da horrela egiten gure deiturarekin. Aiestaran nik dakidanez deitura euskalduna da. Zein argudio daude Y idazteko: beti horrela idatzi izan dela? Espainieraz idatzi ofizial guztietan urteetan idatzi izanaren tradizioa aldarrikatzen hasi behar ote dugu? Espainieraren arauen menpe jarraitu nahi al dugu? edo 'nik horrela idatzi nahi dut' bezalako argudio 'sakonak' balio al du? Ezagutzen al du norbaitek deiturak 'a la carta' idazten diren hizkuntzaren bat?

Koldo Izagirrek arrazoi du: «Euskararen erailketa programatuta dago, kanpotik eta barrenetik». Euskaldunok, geuk, euskara folkloretzat jotzen dugu.

Euskararen etsaiek ez dute lan handirik izango gure hizkuntzaren heriotza agiria sinatzeko.

■ **Felix Aiestaran Arozena.**

→ Laburrak

'Zerbeza perie' gaur 21:30etik aurrera

ALEGIA › Alegiako Gaztetxeak urteurreneko ospatzeko ekitaldiekin jarraitzen du. Gaur bertan *Zerbeza perie* izango dute 21:30ean eta 22:00etan Xebe Diezek bakarrizketa egingo du. Bihar berriz, 17:00etan Rafa Magoa izango da. Igandean 09:30ean abiatuta herriko mendietatik buelta bat emango dute «AHTaren kalteak ikusteko». Era berean, hilaren 18an izango den bazkarirako txartelak 10 euroren truke eskuratu daitezke jada ohiko lekuetan.

Ez ohiko osoko bilkura egingo dute astelehenean

AMEZKETA › Amezketako Udalak jakinarazi duenez, datorren astelehenean, hilak 13, ez ohiko osoko bilkura egingo dute. Bilkura 20:30etik aurrera izango da. Bertan, besteren artean, gai hauek jorratuko dituztela argitu du udalak: Amezketako Plan Orokorreko 9.
Ola Industria Sektoreko Urbanizatzeko Jarduketa Programa dokumentuaren hasierako onarpena; herrian hileta zibilak egiteko aukeraren onarpena; 2011. urteko aurrekontu orokorrak ere izango dituzte hizpide; eta amaitzeko, ohiko galdera eta erreguen txanda izango da.

Mundu bat Tolosaldean, «guztiok elkar ezagutzeko»

Kultura arteko topaketak antolatu dituzte Alegian, Tolosan eta Villabonan gaurtik hilaren 19a arte

Imanol Garcia Tolosa

Tolosaldea Garatzeneko Migrazio eta Aniztasuna Sailetik, eskualdeko zenbait udal eta elkarteen laguntzarekin, Mundu bat Tolosaldean kulturarteko topaketak antolatu dituzte. Abenduan ospatzen diren bi data esanguratsuen inguruan, gaurko Giza Eskubideen Eguna eta hilaren 18ko Nazioarteko Etorkinen Eguna, bultzatu dute egitasmoa. Hainbat ekitaldi egingo dira Alegian, Tolosan eta Villabonan. Jokin Bildarratz Tolosako alkatea, Patxi Renobales Alegiako zinegotzia eta Kristina Morales Tolosaldea Garatzeneko teknikaria izan ziren aurkezpenean.

«Etengabe aldatzen ari den gure eskualdean, hainbat mundu aurki ditzakegu eta era berean mundu bakarra osatzen dugu», azaldu dute. Aurtengo helburuak «azken urtetan Tolosaldera bizitzera etorri diren jatorri ezberdinetako pertsonen errealitatea ezagutu eta guztiok elkar ezagutzeko guneak eskaintzea dira».

Hainbat ekitaldi antolatu dituzte, gaur hasi eta hilaren 19a arte: antzerkia, zinema emanaldiak, erakusketak, elkar trukea, Mundialitoa, munduko gozoak dastatzeko aukera, haurrentzako tailerra eta ipuin kontaketa. Bestalde, 28 Kanala telebista katean, SOS Arrazakeria elkarteko Agustin Unzurruzagaren laguntzarekin, *Krisi ekonomikoak nola eragiten die etorkinei?* saioa emango dute gaur eta hilaren 13an, 20:30ean.

Patxi Renobales, Jokin Bildarratz eta Kristina Morales, atzoko prentsaurrekoan. I. GARCIA

57 herrialde

Tolosaldea osatzen duten 28 udalerritan, 57 herrialdetako 45.149 biztanle daude erroldatuta. Tolosaldea Garatzenek emandako datuen arabera, atzerritar nazionalitatekoak 2.145 lagun dira (%47 emakumeak eta %53 gizonezkoak). Europako Batasuneko nazionalitate ugarienak Portugal eta Errumania dira eta Europako Batasunetik kanpokoak Maroko, Nikaragua, Ekuador eta Ukraina.

Azken 10 urtetan beste herrialde batzuetatik Tolosaldera bizitzera etorritako pertsonak kopuruaren igoera nabaria izan arren, Tolosaldean «atzerritar nazionalitateko pertsonen portzentajea nahiko baxua da, %4,75, EAEko %6,4arekin konparatuz eta baita Estatuko %12,2arekin alderatuz ere», azaldu dute Tolosaldea Garatzenetik. Langabezia datuei dagokionez, eskualdean 2.539 lagun daude lanik gabe, hau da, %12a. Atzerritarrei dagokionez, 360 dira langabezian daudenak, %21a.

↓ Datua

%4,75

■ Tolosaldean atzerritar nazionalitatea duten pertsonen portzentajea %4,75a da. Europako Batasuneko nazionalitate ugarienak Portugal eta Errumania dira, eta Europako Batasunetik kanpokoak Maroko, Nikaragua, Ekuador eta Ukraina.

↓ Egitaraua

ALEGIA

ABENDUAK 10, GAUR

■ **22:00.** Costa Ricako La Polea taldearen *El Nica* antzezlana Kultur Etxean.

ABENDUAREN 10etik 18ra

■ **18:30-20:00.** SOS Arrazakeriaren *Ni ere pertsona* erakusketa Kultur Etxean. Larunbatetan 11:00etatik 12:30era.

TOLOSA

ABENDUAK 10, GAUR

■ **18:00.** Andeetako musika eta instrumentuen tailerra, haur liburutegian. 8 eta 14 urte bitarteko haurrei zuzendutako tailerra izango da.

ABENDUAK 11, BIHAR

■ **19:30.** Costa Ricako La Polea taldearen *El Nica* antzezlana Leidor aretoan.

ABENDUAK 13, ASTELEHENA

■ **19:00.** *La marcha* filma Kultur Etxean.

ABENDUAK 16, OSTEGUNA

■ **18:00.** Munduko ipuinen kontaketa ingelesez, haur liburutegian, 6-10 urte bitartekoentzat.

ABENDUAK 17, OSTIRALA

■ **19:00.** *Aguaviva* filma Kultur Etxean.

ABENDUAK 18, LARUNBATA

■ Gabonetako azoka berezian munduko gozoak dastatzeko aukera Ereite elkartearen eskutik.

■ **19:30.** *Amerikanuak* filma Leidor aretoan.

■ Mundialitoaren finalerdiak Uzturpe frontoian.

Amerikanuak filmako irudia. HITZA

ABENDUAK 19, IGANDEA

■ **11:00.** Mundialitoaren finala Usabal kiroldegian.

■ **16:00-18:00.** Denboraren Bankuak antolatutako Elkartrukearen Merkatuaren baitan, Mundu arteko Elkar Trukea egingo dute. Zerkausian izango da.

ABENDUAREN 10etik 17ra

■ **18:00-20:00.** SOS Arrazakeriaren *Emakumea, etorkina eta bizilaguna* erakusketa Kultur Etxean.

VILLABONA

ABENDUAREN 13tik 18ra

■ **17:00-20:00.** *Gureak ere badira adin txikiko horiek* erakusketa ikusgai egongo da Aljibean.

ABENDUAK 15, ASTEAZKENA

■ **20:00.** *Aguaviva* filma Gurea aretoan.

saridunak sarrerak

HITZAK harpidedun batentzat **sarrera parea** du

SAN SEBASTIAN GIPUZKOA BASKET S.A.D.

LAGUN ARO GBC
Gran Canaria 2014
saskibaloi partida

◦ Ixiar Arratibel (Ibarra)

Abenduak 12 ◦ Igandea
18:00etan Donostiako Ilunben

SAN SEBASTIAN GIPUZKOA BASKET S.A.D.

harpidedunen TXOKOA hitza

sarrerak eskuratzeko Tolosako Hitzako egoitzetik pasa

‘Aitarekin bidaian’ eta Miren abeslaria Gurea Zineman

Hika Teatro taldearen ‘Aitarekin bidaian’ gaur 22:00etan izango da. Bihar 22:30ean Miren abeslariak kantatuko du

E. Maiz Villabona

Gurea Zineman aukera ezberdinak eskainiko dituzte asteburuan. Gaur 22:00etan, Hika teatro taldearen eskutik, *Aitarekin bidaian* ikusteko aukera izango da. Jose Ramon Soroiz eta Joseba Apaolaza aktoreek eta Jabier Muguruza musikariak eskainiko dute euskarazko emanaldi hau. Sarrerak 8 euro balio du eta gazte txartela izanez gero, 6 euro.

Bihar, Miren Fernandez abeslariak, *Laztantzen nauen eskua* dikoa aurkeztuko du 22:30ean. 8 euro balio du txartelak eta gazte txartelarekin 6 euro. Haurrek, 4,5 euro ordaindu beharko dute.

Igandean *Ramona y su hermana* haurrentzako pelikula ikusi ahalko da 16:30ean eta *La Red* filma 19:30ean. Azken hau astelehenean 21:30ean eskainiko dute.

Ibarrako neskak entrenamendu saioan. A. IMAZ

4x4 goma gaineko txapelketako saioa

Emakumezkoak eta gizonezkoak lehiatuko dira. Igandean 12:00etan Anoetako frontoian izango da

E. Maiz Anoeta

Igandean sokatira txapelketako tiraldi saioa burutuko da Anoetako frontoian. Euskadiko txapelketako parte da, 4x4 goma gaineko txapelketa hau. Emakumezkoetan 250 kg. azpikoa eta gizonezkoen kasuan 300kg. azpikoa izango da.

Emakumezkoetan eta gizonezkoetan, Ibarratik bina talde aterako dira. 09:30etik 11:00etara pisatzeak egingo dituzte eta 12:00etan hasiko da Txapelketa. Bezperan Txantrean dute txapelketa berdineko beste tiraldi saioa eta bi txapelketa hauetatik puntu gehien lortzen dituzten taldeek, Abenduaren 18an izango dute finala Berriozarren.

Anoetan, emakumezkoetan, Basaburua-Imotz, Amaiur, Girizia, Berriozar, Ibarra A eta B taldeak ariko dira. Gizonezkoetan berriz, A multzoan: Basaburua-Imotz A, Sokarri A, Amaiur A, Txantrea A, Ibarra A, Barrundia A, Ñapurrak eta Berriozar. Eta B multzoan: Basaburua-Imotz B, Sokarri B, Amaiur B, Txantrea B, Ibarra B, Barrundia B eta Abadiño taldeak izango dira.

Kirolari lotutako asteburua izango dute zizurkildarrek

Zizurkilgo kirolari onenei omenaldia egingo diete gaur 19:00etako mahai-inguruaren ostean

Eneritz Maiz Zizurkil

Atzo aurkeztu zuten asteburuan izango den kirol eskaintza zabala Maria Angeles Lazkano alkateak eta Unai Azkarate udal teknikariak.

Gaur bertan emango diote hasiera mahai-inguruarekin. Herri Kirolen garapena azken 30 urteetan izango dute hizketagai. Horretarako kirolari ezberdinak elkartuko dira Juan Manuel Erasunen gidaritzapean. Ondoren, aurten nabarmendu diren Zizurkilgo Kirolari ezberdinei omenaldia egingo diete. Oroigarriak banatu ostean, Urkamendi Elkartean afalduko dute.

Era berean, udal ordezkariek «eskerrak» eman nahi izan dizkiete kirol munduan eta haurrek kirola egin dezaten lanean ibiltzen diren guztiei.

Azkarate teknikaria eta Lazkanoalkatea aurkezpenean. E. MAIZ

Larunbatean hamabi orduz kirolean eguna izango da. 11:00etan hasiko dute eguna haurren kirolekin eta egunean zehar, herri kirolak, arte martzialen erakusketa, futbola eta halterofiliako Gipuzkoako Txapelketa izango dira. Kirol ezberdinetan parte hartzeko edota kirol ezberdinak ikustera aukera izango da.

Eta igandean, pilota partidak izango dira Intxaur pilotalekuan.

Bihar, XIV. Gau Krosa

Hamabi orduz kirolean eguna bukatzeko, 22:30ean Gau Krosa izango da. Helduak, 1994 urtekoak eta aurretik jaioak: 7,5 kilometro egin beharko dituzte. Gazteak, 1995-1998 urte artean jaioak, 2,5 kilometro eta haurrek, 1998tik aurrera jaioak, kilometro bat (850 metro kontrolatuak eta 250 metro libre). Bukatzean, txokolate beroa banatuko dute.

↓ Kirol asteburua

GAUR

■ **19:00.** Mahai ingurua. Gaia: *Herri Kirolaren Garapena azken 30 urteetan.* Partaideak: Ekaitz Saralegi (pilotaria), Jose Ignacio Orbegozo 'Arria II' (aizkolari ohia) eta Aniceto Lazkano (pilotari ohia). Moderatzaile lanetan, Juan Manuel Erasun.

■ **Ondoren.** Zizurkilgo kirolariei omenaldia: Maitane Aburuza (pilota), Nerea Amilibia (mendi maratoiak), Modes Iraola (ehiza), Aitor Castro (futbola) Aitziber Ibarbia (mendi lasterketa), Pello Argaia (lasto jasotzea), Ander Altuna (txirrindularitza), Xiba taldea (herri kirolak), Jon, Adrian eta Igor Sasiain, Iker Hernandez, Teddy Martinez, Francisco Gonzalez, Ekaitz Kortajarena, Kellyan eta Mikel Quintana, Iñaki Zubelzu eta Joseba Arrate (halterofilia).

ABENDUAK 11, BIHAR

■ **11:00-12:30.** Haurrentzat kirol eta jokoak Intxaur frontoian eta ondoren, hamaiketakoa eta opari banaketa.

■ **13:00-15:00.** Arte martzialen erakusketa eta haur eta gaztetxoentzako hasiera eta motibazio saioak P.M. Otaño ikastetxean.

■ **15:30.** Futboleko eskualdeko partidak Danena Futbol Zelaian.

■ **16:30.** Gipuzkoako Txapelketarako puntuagarri den Halterofilia txapelketa P.M. Otaño ikastetxean: 15 urtez beherakoak: Asier Gallego, Isaam El Oikili, Igor Galludo, Unai Calvo eta Sufiam Robdy. 17 urtez beherakoak: Joseba Arrate, Adrian Sasiain, Kellyan Quintana, Koldo Saratxo, Iñaki Zubelzu, Alain Moleda, Ibon Eguzkitze, Danel Lopez, Aitor Martinez eta Ionut Dandu.

■ **22:30.** XIV. Gau Krosa. Izena doan, www.herrikrossa.com helbidean eman daiteke. Egunean bertan eginez gero 5 euro ordaindu beharko da eta 21:00etatik aurrera egin beharko da.

ABENDUAK 12, IGANDEA

■ **11:30.** Infantilen eta alebinen pilota partiduak Intxaur Frontoian.

Txapela lortzeko Barriolak partida «perfektua» jokatu beharko du

Atano III.a pilotalekuan atzo aukeratu zituzten Barriolak eta Irujok igandeko finalerako pilotak

Asier Imaz Leitza

Abel Barriolak eta Juan Martinez de Irujok hilaren 12an jokatuko dute Lau T'erdiko Txapelketaren finala, Donostiako Atano III.a pilotalekuan.

Jaialdia 17:00etan hasiko da eta lehen partida Xala-Pascualek eta Saralegi-Beginok jokatuko dute. Ondoren irtengo dira kantxara bi finalistak.

Irujo irtengo da faborito bezala, baina leitzarrek, badute esperantza Abel Barriolarekin.

Irujoren aurka nola jokatu

Pilota aukeraketaren ondoren, bi pilotariek prentsaurrekoa eskaini zuten Atano III.an. Abel Barriolaren agerraldian umore puntuak ere egon ziren.

Galdera bati erantzunez, kalean aholku ugari jasotzen ari dela onartu zuen Barriolak. Orduan, kazetari batek Leitzan jendeak pilotaz asko dakiela esan zion. Barre artean, Barriolak baietz erantzun zuen: «Jendeak intentzio on guztiarekin egiten du, finean, bere babesa azaltzen dizu. Hori bai, ezin dizut esan zer esaten didaten, bakoitzak gauza bat esaten baitu. Batek, horrela jokatzeko esaten dit, eta besteak, hortik bost minutura, guztiz aurkakoa».

Berak aldiz, argi dauka finalean nola jokatu behar duen: «Hona iritsi baldin banaiz, jokatzen dudan bezala jokatu dudalako izan da; hau da, botera, betiko erara». Irujo onena dela ere onartu zuen leitzarrak, hala eta guztiz ere, aurkariak baino gehiago bere buruak kezkatzen omen du: «Partidak eskaintzen dituen aukerak aprobetxatzen saiatuko naiz, ausardiaz eta irmotasunez».

Pilotak aukeratu ondoren, Jaunarenarekin aritu zen Barriola. A. I

Jexux Buldain • Abel Barriolaren botileroa

«Irujok maila handia dauka baina sentsazio onak ditut»

Pilota aukeraketan Jexux Buldain (Leitza, 1974) eduki zuen ondoan Abel Barriolak atzokoan. Lau T'erdiko Txapelketa guztian zehar bera izan da pilotari leitzarraren botileroa. Igandean ere aulkitxoan egongo da.

Nola joan da pilota aukeraketa?

Egia esan, pilota gehiago egongo zela uste genuen; eta zeudenek pisu handikoak ziren. Guri komeni zitzaizkigunak, ez zeuden asko, baina bi aukeratu behar direnez... Kosta egin zaigu aukeratzea baina azkenean pozik gaudela esan beharko.

Aurkariarenak nolakoak dira?

Uste dut bat pisu handikoa hartu duela, eta bestea bote dezentekoa. Pisu dezentekoak biak direla esango nuke. Berak airez jokatu nahiko du eta horrelako pilotekin hori bilatuko du.

Nola ikusten duzu finala?

Sentsazio desberdinak dauzkat. Gutxitan egoten naiz orain nagoen bezala. Ez dakit zer gertatuko den baina Abel kantxara oso ondo irtengo dela uste dut. Hala eta guztiz ere badakigu Irujo nolakoa den; pilotari batek behar duen guztia dauka. Maila hori ikusita, Abelek sekulako partida egin beharko du, baina sentsazio onekin nago.

Berriro ere leitzar bat finalean.

Bai eta poza ematen du. Gure herrian pilota asko jarraitzen da eta horrelako egunak emozio handiarekin bizitzen dira.

A. IMAZ

Oinatz Bengoetxea • Pilotaria

«Abel oso memento onean dago eta aukerak ditu»

Abel Barriolak kanporatu zuen txapelketatik Oinatz Bengoetxea (Leitza, 1984). Finalean aldiz, herritarrekin batera Atano III.an egongo da.

Lesio larri batetik irten eta finalera.

Meritu ikaragarria dauka. Profesionaltasun ikaragarriko mutila zela bagenekien, eta oraingoan ere gauzak oso ongi egin ditu.

Inbidia punttu batez ari al zara jarraitzen txapelketa?

Partida garrantzitsu bat dagoenean eta bertan ez baldin bazaude beti izaten da punttu bat. Gure nahia hor borrokatzen egotea da, baina txapelketetan batzuk bakarrik egiten dute aurrera. Niri atzean geratzea tokatu zait eta aurrera joan dena zerbaitengatik joan da. Final handia geratu dela iruditzen zait.

Eta finalean zer?

Irujo beti faboritoa da. Azken urteetako txapelketa gehienak berak irabazi ditu eta horrek baldintza hori ematen dio. Baina Abel ere oso ongi ikusten dut. Final handia izateko osagai guztiak ditu, eta hoberenak irabaz dezala, hartara denak kontentu.

IONE GOROSTARZU

Nola jokatu behar zaio Juan Martinez de Irujori?

Juani mina egitea oso zaila da. Indarrarekin jokatu behar zaio, gauzak oso ondo eginaz, huts gutxi eginaz, tantoa ongi bukatuaz... gauza guztiak ia perfektu egin behar direla uste dut Irujori irabazteko. Baina Abel oso memento onean ikusten dut eta aukerak badituela iruditzen zait.

Final giroa nabarituko da herrian, ezta?

Berriro ere badago giro hori, eta polita da. Finalak bereziak izaten dira eta jendeak asko bultzatzen du.

Materiala aukeratu ondoren Jon Jaunarenarekin entrenamendua

Partida garrantzitsu batek eskatzen dituen lanak egin ondoren, argazkiak, kazetariak, autografoak..., Abel Barriola berriro ere kantxara itzuli zen. Pilota aukeraketan zegoen jendetzarik gabe, entrenamendu saio laburra egin zuen Atano III.an. Leitzarrak beste herritar bat eduki zuen lagun lan honetan, Jon Jaunarena gaztea hain zuzen ere. Abenduaren 29an jokatuko du profesionaletan bere lehen partida Jaunarenak. Egun hori noiz iritsiko zain aurkitzen omen da. Finalaren inguruan aldiz, gauzak ez ditu hain argi ikusten: «Denek faborito bezala Irujo jotzen dute, baina nik nire zalantzak ditut. Abelek berea jokatzen badu eta ongi ibiltzen baldin bada, Irujori lan handiak emango dizkiola uste dut».

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

tolosaldekohitza.iragarkilaburrak.com

Astearten eta ostiraletako 15:00ak arte jasotako iragarkiak soilik argitaratuko dira.
IRAGARKIAK JARTZEKO: www.tolosaldekohitza.iragarkilaburrak.com / 943-6556 / Telefono zenbakira

Higiezinak
ETXEBIZITZAK
ERRENTAN EMAN

Tolosa. Tolosako Alde Zaharrean gela bateko atikoa alokatzen dut, igogailu eta toiminiarekin. Interesatuek, deitu 618-13 00 81 telefono zenbakira.

Lanaheregoziak
LAN ESKARIAK
ETXEKO LANAK

Tolosa. Emakume euskaldun autonomia eskaintzen da Tolosa inguruan. Asteleherietik ostiralera goizetik eguerdira, etxeko lanak, umeak, bazkariak etabar prestatzeko. Interesatuek, deitu 607-90 21 40 telefono zenbakira.

IRAKASKUNTZA

Villabona. Ingeleseko klaseak ematen dira Gipuzkoa mailan. Taldeko edo bakarka. Maila eserendinak. Irakasle titulduna. Telefonoa 664-16 02 68 eta posta elektronikoa continental56@hotmail.com.

Familialetzea
ETXERAKO TRESNAK/ALTZARIAK
SALDU

Ekonomika. Lakuntza clasic markako ekonomika. Egoera onean eta oso gutxi erabilia. Interesatuek, deitu 649-51 09 41 telefono zenbakira.

Denetarik
SALDU/EROSI

Jaunartzeko jantzia. Mutilentzako jaunartzeko jantzia erosiko nuke. Interesatuek, deitu 688-62 68 35 telefono zenbakira.

saltzeko. erosteko. alokatzeko. bilatzeko. oparitzeko...

tolosaldekohitza.iragarkilaburrak.com
euskarazko iragarkilaburren ataria

Interneten
iragarki guztiak **doan**

Paperean
ostiralean atal honetan doan
saldu eta errentan eman ez beste iragarki guztiak
aukeratu papereko edizioa ere iragarkia sartzerakoan

Iragarkien prezioak:
Aste bat 5€ / bi aste 9€
hiru aste 12€ / bost aste 17€

Salbide
SALBIDE
Higiezinen zerbitzuak
Bukaia kalea 6 • 20800 Zarautz
Telef. 943-01 07 00 / Mug. 665-71 85 96
www.inmosalbide.com

Ala. Erakuntza berria. 3 logela, 2 bainugela eta 127m2ko terraza. 46.588.000 pezeta.
Aizarnazabal. 89m2 ko BERRITUTAKO etxea. 3 logela, 2 bainugela, tradizionalezko igogailua eta gasa. Oso etxe ederra. 36.000.000 pezeta.
Aizarnazabal. ALKERA ONA. Etxetxotza eraki berria. 2 logela. 30.000.000 pezeta.
Getaria. Herrerieta kalea. 3 logela eta 2 bainugelako etxebizitza. Trastelekuarekin. Egoera onean. Prezio onean: 42.500.000 pezeta.
Zarautz. AitkenPortu. Guztiz BERRITUTAKO etxea. 3 logela, 2 bainugela eta 2 terraza. Oso polita. 70.000.000 pezeta.
Zarautz. Iparmendi. 3 logela eta 2 bainugelako etxebizitza. Altua eta egoera onean. 31.000.000 pezeta.
Zarautz. Vista Alegren. 2 logela ditu. Terraza handia. Eguzkitsua. 49.500.000 pezeta.
Zestoa. Arriola behea. 2 logelako etxebizitza. 28.000.000 pezeta.
Zestoa. Erdialdean. Etxe bifamiliar batean. 3 logelako etxebizitza. 31.000.000 pezeta.

TXORIERRI inmobiliaria
94-671 38 38 / 94-671 18 11

Etxebila higiezinak
943-44 61 66
ALEGIA, ZERRAIZ

ORDIS Apartamentu berria. Logela, sukaldea, bainugela. 95M. **EL.GOIBAR** Reserv-bilia. 3 eskaera. 10.000m2tako terrenoa. 1.000€
INTXAURRONDO 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela. 85M. **URNIETA** 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. 65M. **AMARA, ANTIGUO** Ekaina bitarteko pisuak, 3 edo logela baizenak. 70M.

SALMENTAN
ANTIGUO Mahia. 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Bakoitza. igogailua. 52.000.000 pta
ERDIALDEA Ordoka. Logela, sukaldea, egongela, bainugela. Berritzeko. 68.000.000 pta
ERDIALDEA 2 Solairutako etxea. 300m2 terrenoa. Komunitatea. Tximiniutxara. 72.500.000 pta
AMARA Ferrerias. Logela, sukaldea, egongela, bainugela. Garajeko. 46.500.000 pta
AMARA Altua. Terraza. 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Berritzeko. 68.000.000 pta
AMARA 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Terraza. 46.250.000 pta
AMARA Aukera tentsiakoa. Hegoa. 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela. 54.000.000 pta
AMARA 70m2. 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Terraza. 51.772.000 pta
AMARA, OSINAGA 2 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela. 62.200.000 pta
GROS Apartamentu oso polita. Logela-egongela-sukaldea, bainugela. 29.786.000 pta
INTXAURRONDO 2 logela, sukaldea, bainugela. Oso polita. Berritua. 37.500.000 pta
EGIA Kamargo-arma. Igogailua. 2 logela, sukaldea, bainugela. Berritua. 41.500.000 pta
MARTUTENE Logela, sukaldea, egongela, bainugela. Kanpora. 22.000.000 pta
HERRERA 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Kanpora. Berritua. 36.200.000 pta
BIDEBIETA 2 logela, sukaldea, egongela bikoitza, bainugela. Terraza. 32.500.000 pta
ALTZA 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Trastelekua. Igogailua. 24.000.000 pta
ALTZA 108m2 4 logela, sukaldea, egongela. Zhainugela. 30m2tako terraza. 48.000.000 pta
ASTIGARRAGA Plazan. 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Polita 35.000.000 pta
PASAIA DONIBANE 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Terraza. 29.200.000 pta
ERRENTERIA Bidigoenean. 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Terraza. 27.880.000 pta
USURBIL 150m2. 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Tximinieta. Jardina. Parkina. 43.500.000 pta

www.etxebila.net
Fatima IV etxea, 4 - DONOSTIA

GE grupo eibar inmobiliaria

ETXEBIZITZA GIDA

www.grupoeibar.com
943 316611

ERAIKITZEN ARI DIREN ETXEBIZITZAK

ANDOETA. Loetzape
1. FASEA SALDUA
2. FASEA SALGAI
Terraza eta trastelekua dutan etxebizitzak.
3 LOGELA 209.000 EUROTIK GORA
2 LOGELAKO DUPLEXA 224.000 €.
2 LOGELA, TERRAZA ETA TRASTELEKUAREKIN 183.000 €.
Itsastote eta polideportiboetaraino andonan. Tren geltoki eta N-1etik gertu.

ELGOIBAR. Urrunibar
2. fasearen berehalako merkaturatzea.
1. fasea, sukaneko etxebizitzak.
2 logelako etxebizitza (5. solairua) 221.000 € (sukaneakoa).
3 logelako etxebizitza (5. solairua) 229.500 € (sukaneakoa).
2 logelako terraza haundiko atiko duplexa, sukaan terraza 240.000 € (sukaneakoa).
3 logelako atiko duplexa, sukaan terraza 251.000 € (sukaneakoa).
Solairu nagusiaren bookas, garajea eta terraza duen duplexa 279.500 eurotik gora.

BERGARA. Lurentxoko
1, 2, 3 eta 4 logela 47.200 eurotik gora.
KANPOKO ALDERA EMATEN DUTEN ETA TERRAZA DUTEN ETXEBIZITZAK. KALITATE MEMORIA BIKAINA.
2 logela 180.300 eurotik gora. 3 logela 285.400 eurotik gora.
Terraza haundia dutein atikoak eta txokoa dutein duplexak.

IRUN. Canal de Santiago
3 logela, 80 m2 + 11m2ko terraza, 3. solairua. 370.000 €.
Kokapen hobeezina: Irunen erdialdean, Santiagoko kanalaren parean, ondeukoentzako apropoeak diren pasealiz inguratua, leku irekia eta eguzkitsua.... eta kalitate memoria bikaina.
2, 3 eta 4 logelako etxebizitzak.

DONOSTIA. Prim 32
Donostiaren erdialdean, berezia eta aukera bakarrekoa.
ERAKIN BEREZIAREN BERRITZE OBRA.
1, 2 eta 3 logela. 455.000 eurotik gora.
Alaberak: lukuiloak eta aniztak, zure etxebizitza berdingabea izan dadin.

ORIO. Polit Dri
1 eta 2 logela 203.000 eurotik gora.
2 logela 1. solairuan, 255.500 €.
2 logela 3. solairuan 261.500 €.
Hegoaldera begira sukaldeak eraberritzeak, komunak, domotika...

ZALDIBIA. Iturguren Azpi
2. fasearen berehalako merkaturatzea.
1. fasea, sukaneko etxebizitzak.
3 logela terraza eta trastelekuareko (2. solairua) 216.200 € (sukaneakoa).
Terraza handiko 3 logelako atikoa, trastelekuarekin 247.800 € (sukaneakoa).
5 logelako terraza handiko duplexa, trastelekuarekin 257.400 €.

ORIO. Errribera Munto
3 logela garajearekin eta trastelekuarekin 306.000 eurotik gora.
Itsasoaren eta itsasadarraren begira, ikastola eta polikiroldegiaren ondoan.
Zentrotik, portutik eta hondartzatik gertu.
Bukaldeak eskaeretara, horma-armairuak, zuraje mateza kanpoko aldetik, barruko zurajeak aukeran, domotika...

HILABETEKO ESKEINTZA...
...AZARO OSDAN ZEHAR

2 LOGELAKO ETXEBIZITZA, 3. SOLAIRUAN
330.000 € GARAJEA BARNE

BUKATU DIREN ETXEBIZITZAK

DEBA. Detolaza Etxea
2.B - Logela 1 - 240.405 €.
3.C - 2 logela - 330.000 €.
ELGOIBAR. Santa Clara.
1.C - 2 logela - 240.404 €.
1.D - 2 logela- 192.000 €.
B Aloa - 2 logela - 276.465 €.
EIBAR. Erdialdean
18 etxebizitza lasain 270.460 eurotik gora.
4 etxebizitza Toribio Etxebarrian 388.000 eurotik gora.
8 etxebizitza Bidebarrietan 173.095 eurotik gora.
6 etxebizitza Calbetonen 295.500 eurotik gora.
ZUMARRAGA. Iparragirre.
Atiko duplexa 80m2 - 331.754 €.

INDUSTRIALAK

Industrialguneen alokairua eta salmenta
Bergara, Elgoibar eta Elgetan

DONOSTIA. Plaza José Mª Sert 10, 8j. **BERGARA.** 943 767332 Paseo Irizar 3, 8j. **EIBAR.** 943 206479 Toribio Etxebarria 7, 8j D. **ELGOIBAR.** 943 748002 San Francisco 44, 8j. **IRUN.** 659 940682 Cl José R. Aguinetxe 1,8j. **ORIO.** 943 133540 Cl Alta Lertxundi 21, 8j. **ZALDIBIA.** 943 887143 Santa Fe 41, 8j. **BILBAO.** 619 274183. **BERMEO.** 689 236838. **ERMUA.** 943 170715

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

2010-12-10 Eguraldia

Goiza | Arratsaldea | Tenperatura: 11º / 4º

Bihar (EGUZKIA / LAINOAK)
GOIZA
ARRATSALDEA
BEROENA 13º
HOTZENA 5º

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza. Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_publi@tolosaldekohitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo @hitza.info.
Anoetaldea: 687 410 022. anoetaldea @hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea @hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea @hitza.info.
Leitzaldea: 687 410 118. leitzaldea @hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak: BERTAKO HEDABIDEAK eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile | Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil | Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Agenda

ANTZERKIA

■ **Alegia.** *El Nica* (Costa Rica) antzerki saioa, gaur 22:00etan, Kultur Etxean.
■ **Villabona.** *Aitarekin bidaian* antzezlana, gaur 22:00etan, Gurea aretoan.
■ **Tolosa.** *El Nica* (Costa Rica) antzerki saioa, 19:30ean, Leidorren, bihar. 8 eta 14 urte bitarteko gaztetxoentzat.
■ **Tolosa.** *Xurdinen Gaboneta-ko kontzertua*, bihar 18:00etan Zerkausian, eta ondoren *Disko Top Junior*, Tolosa & Co Merkatari elkarteak antolatuta.
■ **Alegia.** Rafa Magoa, bihar 17:00etan.

AZOKA

■ **Alegia.** Garagardo azoka, gaur, 21:30etik aurrera.

DANTZA

■ **Tolosa.** Alurr dantza taldearen *Oinazez* ikuskizun berria, 22:00etan, Leidorren, gaur.

ERAKUSKETAK

■ **Alegia.** *Ni ere pertsona* erakusketa, SOS Arrazakeriaren eskutik, datorren ostirala bitarte, Kultur Etxean.
■ **Tolosa.** Indonesiako txotxongiloak daude ikusgai Topic Txotxongiloen zentroan, urtarrilaren 10era arte.
■ **Tolosa.** *Emakumea, etorkina, bizilaguna* erakusketa, SOS Arrazakeria elkartearen eskutik, Kultur Etxean, hilaren 17ra arte, 18:00etatik 20:00etara izango da ikusgai.
■ **Tolosa.** *Gureak ere badira adin txikiko horiek* erakusketa, SOS Arrazakeriaren eskutik, astelehenetik ostiralera, Villabonako Aljibean.

KULTUR ASTEAK

■ **Alegia.** *India bost zentzuen bitartez*, hitzaldia gaur 20:00etan, auzo elkartean, Edurne Maiz auzotarraren eskutik. Bihar haurrentzako filma 15:00etan eta ondoren txokolatea eta eskulan tailerra. 20:00etan gaztaina jatea.

KIROLAK

■ **Zizurkil.** *Herri kirolaren garapena azken 30 urteetan* mahaingurua, gaur Kultur Etxean, 19:00etan. Ondoren, Zizurkilgo kirolariei omenaldia.
■ **Zizurkil.** Hamabi orduz kiroleran Zizurkilen, bihar: 11:00etatik 12:30era haurrentzat kirolak eta jokoak Intxaur frontoian. Ondoren, hamaiketakoa eta opari banaketa. 13:00etatik 15:00etara, arte martzialen erakusketa eta haur eta gaztetxoentzako hasiera eta motibazio saioa, Pedro Mari Otaño ikastetxean. 15:30ean, futboleko eskualdeko partidak, Danena futbol zelaian. 16:30ean, Gipuzkoako Txapelketarako puntuagarri den Halterofilia Txapelketa, Pedro Mari Otaño ikastetxean, 15 urtez beherakoak eta 17 urtez beherakoak. 22:30ean, Zizurkilgo XIV. Gau Krosa, helduak, gazteak eta haurrak. Etzi: 11:30ean, infantil eta alebinen pilota partidak Intxaur pilotalekuan.
■ **Tolosa.** Futbola, kadeteen 1. maila, Usabalgo futbol zelaian, bihar 09:30ean: Tolosa CF - Beasain.
■ **Tolosa.** Saskibaloia, infantil mutilak, bihar, Usabalen goiko kantxan, 10:30ean: Take Aldaba - Take Bedaio.
■ **Tolosa.** Futbola, kadeteen F11, Usabalgo futbol zelaian, bihar 11:00etan: Tolosa CF - Lazkao.
■ **Tolosa.** Saskibaloia, kadete mutilak, Usabalen goiko kantxan, bihar 12:00etan: Take Tovar - Mondragon unibertsitatea; Bide Bide Take - OKE.
■ **Tolosa.** Eskubaloia, infantilak, Usabalen beheko kantxan, bihar 12:00etan: Tolosa - Leizaran.
■ **Tolosa.** Futbola, infantilak, Usabalgo futbol zelaian, bihar 12:30ean: Tolosa CF - Villabona.
■ **Tolosa.** Futbola, kadeteen ohorezko maila, Usabalgo futbol zelaian, bihar 15:30ean: Tolosa CF - Sporting Herrera.
■ **Tolosa.** Saskibaloia, senior mutilak, Usabalen goiko kantxan, bihar 16:00etan: Take Orbela - Allerru.
■ **Tolosa.** Futbola, jubenilen ohorezko maila, bihar, 16:30ean, Berazubiko zelaian: Tolosa CF - Rela Sociedad.
■ **Tolosa.** Futbola, jubenilen 1. maila, Usabalgo futbol zelaian, bihar 17:30ean: Tolosa CF - Euskalduna.
■ **Tolosa.** Areto futbola, nazional liga, Usabalen goiko kantxan, bihar 18:00etan: Laskorain - Aldaz.
■ **Tolosa.** Eskubaloia, kadeteak, Usabalen goiko kantxan, etzi 10:00etan: Tolosa - Arrate.
■ **Tolosa.** Eskubaloia, seniorrak, Usabalen goiko kantxan, etzi 10:00etan: Tolosa - Donibane.
■ **Tolosa.** Tolosa saria Batelen estropada Oria ibaian, etzi, 11:00etan.
■ **Tolosa.** Futbola, emakumezko infantilak, Usabalen futbol zelaian, etzi 11:30ean: Tolosa CF - Lakua.

El Nica antzezlaneko une bat. HITZA

MUSIKA

■ **Tolosa.** Bonberenean, gaur: We are standard, 22:30ean; bihar: 25th Coming Fire eta 30%, 22:30ean; etzi: Michel Cloup frantziarra, 20:00etan.
■ **Villabona.** Miren abeslariaren kontzertua, bihar, 22:30ean, Gurean.
■ **Tolosa.** Batxitxango disko jaia, bihar Beotibarren, 23:00etatik 05:00etara. Aurretik, afaria Zerkausian.

TAILERRAK

■ **Tolosa.** Andeetako musika eta instrumentuen tailerra, Errota Haur liburutegian, gaur.

TXOLARRE EGUNA

■ **Anoeta.** Bihar 12:30ean Loatzo Musika Eskolakoekin kalejira; 14:00etan, bertso bazkaria Kuku elkartean Aitzol Barandiaran eta Amaia Agirre bertsolariekin; gero trikipoteoa; 22:30ean, Berri Txarrak gaztetxean.

ZINEMA

■ **Tolosa.** Leidor aretoan, igandean: 17:00etan, *El diario de Greg*, eta 19:30ean eta 22:00etan, *Los ojos de Julia*. Astelehenean (ikuslearen eguna): 20:30ean, *Los ojos de Julia*. Kultur Etxean, astelehenean: 19:00etan, *La marcha*.

Farmaziak

GAUR

■ **Tolosa.** Bronte, C.I. Korreo kalea, 20. 943 67 60 13.
■ **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia. 112.
■ **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea. 112.

BIHAR

■ **Tolosa.** Ugarte, M.T. Euskal Herria, 46. 943 67 32 74.
■ **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia. 112.
■ **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea. 112.

ETZI

■ **Tolosa.** Olarreaga, M. Martin Jose Iraola, 10. 943 67 24 38.
■ **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia. 112.
■ **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea. 112.

ASTELEHENA

■ **Tolosa.** Olarreraga, J. Korreo kalea, 2. 943 67 01 28.
■ **Lekunberri.** Azpiroz, M.A. Aralar kalea, 43.

HITZAk ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

agurrak
urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

EZAGUTU WEBGUNE BERRIAK
www.TOLOSALDEA.hitza.info
www.IBARRALDEA.hitza.info
www.ALEGIALDEA.hitza.info
www.LEITZALDEA.hitza.info
www.TOLOSA.hitza.info
www.ANOETALDEA.hitza.info
www.VILLABONA-AIZTONDO.hitza.info